

Bakar-jokoan tranpak egiten

Europar Batasunaren etorkizunaren tzat erabakigarria da 2017. urtea. Hauteskunde moduko hiru *match point* salbatu beharko ditu gutxienez: Herbehereetakoak, Frantziakoak, Alemaniakoak eta, agian, Italiakoak ere bai. Lehenengoa pasatu da eta establimenta kontentu dago emaitzarekin. Azkenean, Geert Wilders eta bere Askatasunaren aldeko alderdiak ez ditu hauteskundeak irabazi. Halere, ezin ukatu daiteke igoera handia izan duela, bigarren indarra izatera pasatu da eta bost eserleku gehiago irabazi ditu. Orotara, eskuin populistak hogeita bost eserleku izango ditu, aurreko legegintzaldian baino zazpi gehiago.

Eskuin populista kategoriarean alderdi oso desberdinak sartu ohi dira. Guztiek konpartitzen duten elementua da nazionalismo etnikoa, eta beraz, immigrazio politika murriztaileen alde egiten dute eta gradu batean edo bestean islamofoboak dira. Hortik aurrera, ideologia aldetik sentzibilitate desberdinetakoak daude. Adibidez, Fronte Nazional frantsesak proposamen sozialdemokrata erradikalak ditu arlo sozioekonomikoan, Wildersek aldiz, agenda neoliberal bat bultzatzen du nagusiki. Beste desberdintasun garrantzitsu bat da alderdi bakoitzak duen izaera. Fronte Nazionala hauteskunde presidentzialak irabazteko estrategia batean ari da lanean, horregatik, bere programan aspektu batzuk azpimarratu arren, oro har, proposamen integral batean oinarritzen da. Askatasunaren aldeko alderdia ordea, gai bateko alderdi gisa izenda genezake, hau da, bere programako aspektu gehienek ez dute koherentziarik, inportanteena islamofobia da.

Herbehereetako hauteskunde sistema munduko proportzionalenetako bat da, barruti bakarrean 150 diputatu esleitzen dira. Hautagaitza batek botoen



Asier Blas

EHU-KO IRAKASLEA

@AxiBM

Eskuin populista kategoriarean alderdi oso desberdinak sartu ohi dira. Guztiek konpartitzen duten elementua da nazionalismo etnikoa eta, beraz, immigrazio politika murriztaileen alde egiten dute eta gradu batean edo bestean islamofoboak dira. Hortik aurrera, ideologia aldetik sentzibilitate desberdinetakoak daude

%0,67 ateratzen badu, eserleku bat eskuratzen du, beraz, edozein muturreko proposamen Parlamentuan erraz sartu daiteke eta eztabaida politikoa baldin-

tzatu. Bestalde, populistek oso zaila dute gobernuan sartu ahal izatea eta ia ezinezkoa boterea bakarrik lortzea. Hori sistema presidentzialistetan gerta daiteke, irabazleak jokoan dagoen kargu bakarra lortzen duelako, horregatik Trumpek irabazi ahal izan du AEBetan edo Ezker populistak Latinoamerikan. Berriz, sistema parlamentario proportzionaletan sentzibilitate politikoa desberdinen artean sakabanatu egiten da botoa. Koalizioak behar izaten dira gobernuak osatzeko. Wildersek ondo daki hori, horregatik, gobernuak lortu baino, agenda politikoa baldintzatu eta bere ideiekin gainontzeko alderdiak kutsatzea du helburu. Adierazpen politikoa probokatzailerekin harrabotsa sortzen du, baina ezin uka daiteke bere ikuspegitik emaitza onak lortu dituela. Bai, Wildersen alderdi ohiak, Askatasunaren eta Demokrasiaren aldeko Alderdi Popularrak, irabazi ditu hauteskundeak berriro, baina zein prezioetan?

Hauteskundeak izan baino bi aste lehenago Europako Batzordeak *paperik gabe* dauden milioi bat etorkin EBetik bota behar direla adierazi zuen. Hau gutxi balitz, hauteskunde kanpainako azkeneko astean Herbehereetako Gobernuak bere egin ditu Wildersen posizioak Turkiari dagokionean. Erdoganen gobernuko kideen mitinak debekatu ditu eta Turkiako Kanpo Harremanetarako ministroari ez zion baimena eman Holandan lurreratzeko, nazioarteko legediaren mugak esploratuz eta NATOko aliatu batekin liskar bat irekiz. Ondorioz, lehen ministroak eta koalizio gobernuan jarrera gogorrena izan duten demokristauek beren saria jaso dute hauteskunde emaitzetan. Bitartean, ezkerria inoiz baino ahulago agertu da 37 diputaturekin (14 Sozialista-Ezker Unitarioa, 14 Ezker Berdea, eta 9 Labo-ristak). Seguru eskuin populista galtzen ari dela? ■